

«Zure aldin ibilli ga(ra). Zure aldin abestu dau.»

O sea, dicho con énfasis. Hemos andado mucho mejor que tú.

Ha cantado mucho mejor que tú.

tertixo, tertixoku: Significa hoy (antes no sé) igual que el anterior.

«Zure tertixun ibilli ga(ra).»

«Zure tertixun kanta dau.»

rotu(a): Gordo. Refiriéndose a personas también se dice «totolo» (totolu, a).

entrami(a): Mucho apetito.

bostin (bostian): «Neure bostin, zeure bostin, etc.». Este «bostin» equivale a «baitan» de alguna parte:

«Bere 'bostin' berbetan ibiltan da.»

«Bere baitan izketan aritzen da.»

ganbuste: Usan los pescadores. No lo sé exactamente, pero creo que cuando la bolsa del cerco llega a flotar (cosa que no debe hacer normalmente).

zapladak: Paliza. Siempre se dice en plural.

euri lantxe: Sirimiri. Vocablo marinero.

berrido, berriri: En la boca de pescadores significa «racha de buena suerte», más que nada en faenas pesqueras.

Euskaltzaindiaren Agiriak

SARRERA

Honako Atal honetan Euskaltzaindiak berak bere bilkura nabiz arrunt nabiz berezietan egindako hitzaldi eta emandako agiri eta erabakiak agertzen dira. Hitzaldi-agiri hoiak joan den urteko azkenalde eta aurtengo lehen aldeari dagozkio. Hona hemen beroien zerrenda: 1) Gasteizko Batzarrean Lekuona jaunak egindako hitzaldia; 2) Leizarragaren omenez Beskoi-tzen egindako hitzaldiak; 3) Aramaioko bilkura agerikoak; 4) Ez, bait, eta ba-ri buruz Euskaltzaindiak erabakitako idatz arauak; 5) Idatzarauetazko Batzordearen berriztatzea; 6) Euskaltzaindiaren Arautegiari buruzko dokumentazioa, eta Arautegi berriaren testua hiru hizkuntzatan; 7) J. Haritschelhar jauna batzar moderatzaile izendatu zenekoa; 8) Nobelaren sariketan baldinkizunak jarri zirenekoak; 9) Alfabetatze Batzordearen barrenko Araudia; 10) Irakasle karneta lortzeko eskatuko denaren mamia.

Eta azkenik, Batzar-agiriak.

GASTEIZ'KO BATZARRA SARRERAKO ITZALDI

Mis muy queridos alaveses:

Me vais a permitir que, como Presidente de la Academia de la Lengua Vasca, simbólicamente al menos, os hable primero en la veneranda Lengua de vuestros mayores. Luego os haré un resumen, bastante amplio, en Castellano.

El tema de mis palabras será «El Euskera *en* Alava», en contraposición a otra docta disertación de vuestro paisano D. Odón de Apraiz, que también escucharéis y será sobre «El Euskera *de* Alava».

Con vuestra venia, pues.

Euskaltzaiñok:

Gure Euskaltzaindiaren berrogeitamar urte-betetze ontan erreskadan gaur Gazteitz'en batzartzea dagokigun ezkerro utziko didazute, euskaltzaiñok, nere arabar maiteoi, asiera-orde itz bi —itz bero bi— esatea.

Ez daukat esan bearrik, nolako pozez gogoratzen zaizkidan gaur Gazteitz ontan, gerrateko urtea arte emen egin nituan nere bizitzako ogeitamar urterik ederren aiek. Ogeitamar urte, Gazteiz'ko leen «gure», ta gaur «zuen» —leen giputz, bizkaitar eta arabarren, eta gaur arabarren bakarrik dan Apaizgaitegi, Seminario gogoangarrían. Ogeitamar urte, poz batean, euskal-kulturarentzako Seminario jator bat eratzen. Ez daukat nik, nola-naí aazteko, nere betiko adiskide min Dn. Jose Miguel Barandiaran'ek eta biok, Gazteiz'ko inguru oietan, Ostegun-arratsaldeoro egiten genituan ibilliak, erririk-erri, baztarrik-batzar, beti ametsetan, zer-ikusiko, zer-arkituko, zer-asmakuko gure kultura, euskokultura Seminarioan osatu naiez. Zenbat amets eder!

Zenbat amets eder! Baiñan, ez, askotan oi-dan bezela, amets utsetan gelditzeko. Jaunari eskerrak, guztiok dakizuten bezela Gazteiz'ko gure Apaizgaitegia, eusko-kulturarentzako bizi-leku ta kabi jator izatera iritxi zan gerrate-aurreko urte aietan. Geroztik lanean diarduten euskaltzale askok eta askok orduan egin zituzten beren lenengo lan-saioak.

Baiñan guzti ori gogoan dedalarik ez ditut aaztu nai, ezta beste antziñagoko, Araba'k Euskerari buruz egindako zenbait gauza ere: Araba'k Euskerari buruz egin zuan —egin bear izan zuan— jardun aldi garratza, alegia.

Askotan aaztu egiten degu Araba, gaur Bizkaya ta Gipuzkoa bezela, *euskaldun*, euskaldun jator-jator izana degula. Araba'k bere politika-nortasun izango zuan, Bizkaya'k eta Gipuzkoa'k zuten bezela, bere nortasun bereizi; baiñan, Araba, kulturaz, erri-izaeraz, odolez, eta, ia orain arte izkuntzaz ere euskaldun izan zan, eta izan da beti biotz-biotzez... Gaur izkuntza galdua duala ezik: Euskera galdua...

Negar-egitekoa da, benetan. Baiñan, on izango da beti ere, ikusi ta gogora dezagun gauzak nola gertatu izan ziran.

Euskeraren mugak, antziña oso edatuak, oso zabalak ziran, oraingo aldean. Burgos-ifarraldea euskaldun zan: Bardulia zeritzan Erdi-Aroan, eta an zeuden, beste askoren artean, Urbel bat, eta Salazar eta Amaia Amaia'tik Bizkai-alderago, berriz, Terminon bat, Amaiak eta biok gauza bera esan nai bait dute: Euskeraren muga urrutia, alegia. Baiñan ez bait da ori bakarrik: Kastilla, Leon'en aurka Errege-di berezi egiteko Barduliatar aiek Bizkaia ta Araba izan zituzten laguntzaille; eta Errege-di arren sortzaille izandako Konde Fernan Gonzalez euskalduna zan ezpairikan gabe, ez amaldetikan bakarrik —ama arabarra bait zuan— baita bere izatez ere. Burgos'ko Zid bera ere, alde-alde bilingue, euskaldun-erdaldun zan. Eta Burgos'en ezker-eskubia kere, berdin, euskaldun ziran, gure Merino-Urrutia Jaunaren azterketa sakon-sakonetatik dakigun bezela... Gaur, ordea, guzti ori, eta Araba ere bai izkuntzaz *erdaldundua* degu. Zer gertatu zan, bada?

Negargarria; baiñan baita adi-erreza ere. Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n eta Ifar-Nafarroan, ez daukagu *arrotzerik* Euskera gaur arte gorde degulako. Gure artean Euskera mendiak gorde dute; mendiak eta berezi-berezi bizi izateak. Araba etzegon, Gipuzkoa ta Bizkaia bezela, ain ondo mendiz babesturik, kultura arrotzen kontra bere kulturari, bere izkuntzari batez ere bizirik eusteko. Gogoratu besterik ez dago, Araba'n zear igaro izan dirala munduko kulturarik indartsuenak antziña-antziñatik, Astorga-Bordele arteko bideari jarraituaz Erromatarren Legioetatik asita, gero ta gero izan diran giza-

ibiltze aundiataraiño. Ez bait da arritzeko, ola, ezarian-ezarian, ainbeste kulturakiko igurtzi aietan, aizkenean izkuntza galdu izana.

Negar-egiteko da, bai, baiñan ez arritzeko. Nolanai-dala, ordea, oso *ezari-ezarian* gertatu bide-zan galtze ori. XVIII gizaldian oraindik, Kuartango batean euskeraz mintzatzen ziran, histori-zaleak diotenez. Eta gauza bera bait-diote, XIX gizaldian Gebara-inguruko Otzaeta, Elgea, Larrea ta Albeniz'entzat. Araba'k naiko tenk eutsi izan dio, bere arbasoengandiko ondare aberatsa zuan Euskera zaarri. Neretzat, guzti ori seiñale ta garantia bait da, gaur edo biar bir-irabazte *reconquista* bat egin bear balitz, Araba'k ondo bai ondo erantzungo liokela, ortarako egin bearko litzaken ekin eta saiaketari.

Nola-nai dala zuen Araba ontan gauza bat ageri da garbi: gaur oraindik Euskeraganako uste on eta iritzi obe bat dezutela arabar jatorrok; inbiri santu bat diozutela Gipuzkoari eta Bizkaiari, ondare eder au, berebiziko ondare au bizirik gordetzeko zoriona izan dutelako, izan degulako.

Baiñan Gipuzkoari eta Bizkaiari ere gai ontan ba dagokigu egin-bearrik: lagun dezaio gura, gure senide maite dan Arabari, bere euskalduntasunari eusten: daukana bizirik zaitzen eta galdutakoaren bir-irabazterik egitekoan Arabarekin batean zintzo ta benetan jokutzen.

Arabarrak! —eta bukatzera noa onenbestez—. Bir-irabaztea, *reconquista* aipatu dizutet; «bir-jabetzea», obeto baderitzazute: *recuperación*, galdutako euskera poliki-poliki berriro eskuratzea, alegia. Ba dakit lanbide ortan asiak zeratena: zuen aurtxuengandik asi ere, Ikastolaren bidez.

Guk, zaarrok, len aipatutako urte eder aietan zerbait egin genduan, *Escuela de Artes y Oficios*'en aundientzako Ikastola baten bidez —neroni bait nintzan Ikastola artako Irakasle—; eta orretaz gaiñera Herreria-kalean gatzetxoentzako Ikastola ta Jolas-etxe eder baten bidez. Gerrateak *ankaz gora* bota zizkigun ezik gure *recuperacio*-lan aiek... Orain, ordea, poz aundiz dakit, bide berean jarraitzen dezutela umetxoen Ikastolaen bidez. Ekin bide ortatik! Ortan dago-ta zuen Euskeraren bir-jabetzea.

Eredu bat nai dezute?

Ba dakit *guztion aotan* izen bat dabillela une ontan: OLABIDE, arako arabar eredu bikain ura, langille neka-ezin eta ezin-aspertua.

Berak ere *Euskera galdurik* zedukan. Baiñan arabar-odolak zaiñetan irakiten zion eta Olabide'k egun batean itz bat esan zuan: «Gaur-tandik!»; gaurtandik asita, ni egingo naiz, gure asabaen Euskera ederraren jabe!

Baita egin ere! Ikusi besterik ez dago, ez Euskeraren jabe no-la-naiko; *lau lan* bikain-bikaiñen egille gañera: «Kristoren Antz-bidea», «Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak», «Giza-soiña» eta batez ere «Biblia» osoa, «Itun Zar» eta «Itun Berri». Orra or, arabar baten «*bai*» batek zer lezakean.

Or dezute zuen eredia! Eta ez noa geiago ezer esatera. Jarrai dezazutela, Aita Olabide'ren bidetik, *aspertu gabe*.

RESUMIENDO

Alaveses que me escucháis: Acabo de evocaros la figura del gran alavés, que fue el P. Olabide, como modelo a imitar por todos vosotros en el momento actual de nuestra vida en relación con el problema de nuestra lengua vasca; lengua que es la de vuestros abuelos, y la misma que para siempre dio a Alava su común denominador con Vizcaya y Guipúzcoa, de *Euskalerría* o Provincias vascongadas.

Alava ha sido de siempre uno de los estamentos vascos, en comunidad de sangre, instituciones, cultura y concretamente lengua con las Provincias Hermanas.

A propósito, he evocado con nostalgia este último hecho de la lengua, extensiva antaño, ya no a solo Alava, sino también a las vecinas tierras de gran parte de la actual Castilla —Castilla a cuya erección, en la Edad Media, en Reino separado de León tanto ayudaron precisamente Alava y Vizcaya—. Gran extensión tenía entonces nuestra lengua por estas tierras. Extensión que, con el tiempo y en fuerza de los contactos y roces culturales a que se ven sometidos los pueblos, al fin se redujo a las dimensiones actuales, de Vizcaya, Guipúzcoa y parte de Navarra, quedando Alava casi toda ella fuera del ámbito euskeldun.